

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea

DATA: 2018/11/13

Saila	Laburpena	Erantzuna
Hirigintza	Salatu dute ur-isuri bat egon daitekeela Iparragirre 2ko eraikinean, Cadenas Iris parean, eraikinaren terrazako ur-pilaketagatik; eta horrek kalteak eragin ditzakeela Urkizu pasealekuko 32-34-36 zenbakietan.	Iparragirre kaleko 2. zenbakiko eraikina ez da Urkizu pasealekuko 32-34-36 zenbakietako garajeen mugakide. Barruko bide batek bereizten ditu. Industria-eraikinaren estalkitik ura jausten da eta baita bidetik ere, baina horrek ez du eragin zuzenik garajeetan.
Obrak / Zerbitzuak	Bizilagun batek salatu du Karmengo parkera ematen duten eskailerak beti daudela urez beteta eta, gainera, zikin-itxura ematen dutela.	Plaza iragazgaiztuta dagoenez, euri-ura ez da iragazten eta pilatu egiten da. Gainazaleko ura gutxitzeko, sareta batzuk jarri dira ura bideratzeko.
Zerbitzuak	Eskatu dute bigarren txartel bat ematea edukiontzia erabiltzeko.	Abisua eman zitzaion Mankomunitateari, eta jakinarazi zuen bai jatorrizkoa txartela, alegia, bidalitako lehena, bai lehen duplikatua doakoak direla. Hortik aurrera, ematen den txartel bakoitzak 2 euroko kostua du. Edozein kasutan ere, Mankomunitateko bulegoetara joan behar da, 8:00etatik 14:00etara eta txartela eskatu.
Zerbitzuak	Galdetu dute ea errefusarako edukiontzi batzuk txartelik gabe jar litezkeen, jendeak ez ditzan poltsak kanpoan laga.	Ez da posible, txartelaren erabilerak edukiontzien kontrola ahalbidetzen du eta.
Udaltzaingoa	Eskatu dute berriro jartzea autobus-geltokia Barrena kaleko 16 zenbakian.	Bi noranzko dituen kalea denez, geltoki hori jartzeak trafikoa arazoak sortu litzake.
Udaltzaingoa	Karmen kaleko 4-6 zenbakietako bizilagun batek auzozainaren kontrol gehiago eskatu du, saihesteko jendeak zabor-poltsak edukiontzietatik kanpo lagatzea, eta eskatu du zigortu dadila.	Eskatutako kontrola bai auzozainek bai gainerako udaltzainek egiten dute. Ordenantzak urratzen ez dituen jardueraren bat antzematen denean, salatu egiten da.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea

DATA: 2018/11/13

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Urkizuko dorreetako bizilagun batek galdetu du gaikako zabor-bilketa tasaren eboluzioaz.	Datu horiek Mankomunitateko webgunean daude, <a href="http://www.debabarrena.eus">www.debabarrena.eus</a> orrian.
Zerbitzuak	Galdetu du ea noiz jarri behar dituzten txipdun edukiontziak Urkizuko dorreetan.	Abisua eman zitzaion Mankomunitateari, eta jakinarazi zuen erabaki zela sarrailarik ez jartzea lurpeko edukiontziei.
Zerbitzuak	Informazioa eskatu dute txip eta pedaldun edukiontzien aurreikuspenen inguruan.	Mankomunitateak jakinarazi du ezen, aldameneko kargako edukiontzien bi modeloetatik, serraila eta pedala duten edukiontziak jarri direla proba moduan. Eibarren, zehazki, Sostoa eta San Juan kalean daude. Orain arte, ez dute arazorik eragin, baina zain gaude, ea noiz ezartzen den horren inguruko jarduera-plana. Mankomunitatetik esan dute, duten esperientziagatik, pedalak bakarrik jarri beharko lirakeela errefusa-zatikiekin.
Alkatetza	Informazioa eskatu dute Amaña eta Azitain arteko hiri-bidegorriaz.	Hiru aukera lantzen ari gara. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren eskutik, hitzarmen orokor bat dago trenbideen gainetik hainbat oinezkoentzako lotura egiteko, eta hortan oinarritutako hitzarmen zehatza onartzeko hausnarketa egiten ari da, Berdintasunaren Pasealekuarekin lotura izango lukeena. Bestalde, oinezkoentzako hiri eremuaren bidezko loturak ere lantzen ari gara, eta Eibar 30 km/orduko hiria ekimenarekin, koexistentzia esparru bat sortuko litzateke, bidegorria egitea ekarriko lukeena.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea

DATA: 2018/11/13

Saila	Laburpena	Erantzuna
Udaltzaingoa	Galdetu dute ea noiz izan behar den Eibar 30 km/orduko herria.	Aztertzen ari den jarduera bat da, bai politikoen artean bai teknikoen artean. Helburua da 2020an sartzea indarrean.
Obrak	Saratsuegiko bizilagun batek informazioa eskatu du Saratsuegirako irisgarritasunari buruz.	Gaur egun, lanak egiten ari dira espaloiak hobetzeko, eskailera-mailak kentzeko eta aparkaleku berria bat egin da. Aurreikusita dago lan hauek urte amaierako eginda egotea. Aldi berean, bizilagunekin egindako bileren ostean, aukera bat onartu zen eta datorren urtean proiektua lizitaziora ateratzea aurreikusten da.
Obrak / Hirigintza	Barrena 36 zenbakiko auzotar batek soluzio bat eskatu du eraikin horretako bizilagunek duten irisgarritasun-arazoaren aurrean, etxera sartzeko aldapak inklinazio handia duelako.	Aztertu egin zen, eta pegorara atzeko aldetik sartzeko aukera ikusi da. Aurreikusita dago datorren urtean proiektua idaztea
Udaltzaingoa	Barrena kaleko bizilagun bat kexu da kalean dauden txakur-kakak direla-eta.	Ikusten denean txakur-jaberen bat bere animaliairen kakak jasotzen ez dituen, salaketa jartzen da. Gizalege kontu bat da.
Zerbitzuak	Galdetu du ea presiozko makina bat erabil litekeen txakurren kakak ezabatzeko.	Mankomunitateak jakinarazi duenez, normalean, gorozkiak presiozko urarekin garbitzen dituzte, salbu eta une zehatz horretan ur hori erabilgarri ez badute, arratsaldeetan gertatzen den bezala.
Zerbitzuak	Bizilagun batek salatu du 32 zenbaki osteko kanala zikin dagoela eta ura pilatzen dela.	Joan den otsailean garbitu zen.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea

DATA: 2018/11/13

Saila	Laburpena	Erantzuna
Alkatetza	Eskatu du zarataren aurkako panelak jartzea autopista auzotik pasatzen den tarteetan.	Joan den otsailean, berriz ere idatzi bat bidali zitzaien Bidegiri eta Bide Azpiegituretako Departamentuari, eskatuz zarataren aurkako panelak eta segurtasunekoak jartzeko autobidearen zati osoan, Eibar parean.
Zerbitzuak	Barakaldo kaleko bizilagun batek eskatu du gehiago garbitzea inguruko kale, espaloi eta parkeak. Esan du poste batzuk beltz daudela.	Mankomunitateak jakinarazi duenez, leku hori astean 6 egunetan garbitzen da.
Zerbitzuak	Jakinarazi dute Barrena eta Iparragirre arteko berdeguneko arbola handi batek Iparragirre kaleko 5 eta 11 zenbakiei eragiten diela, besteak beste argi naturala kenduz. Kentzea eskatu dute.	Arbola horiek inaustea 2019ko abendu amaiera eta 2020ko hasierarako aurreikusita dago.
Udaltzaingoa	Barrenako bizilagun batek esan du Azitaingo tren-geralekuan liztor asiarren habia bat dagoela.	Kendu egin zen aipatutako habia. Baten batek liztorren habia baten berri ematen duen bakoitzean, egin beharreko egiaztapenak egiten dira eta abisua ematen da habia erretiratzeko.
Obrak	Jakinarazi dute LIDLeko oinezkoen pasabidean, putzu bat sortzen dela. Eskatu dute galtzadaren zati hori konpontzea.	Ez dago aurtengo proiektuan sartuta, 2020rako aurreikusitako barruan dago.
Udaltzaingoa	Galdetu dute ea modurik dagoen Barrena kalean motorrek ateratzen duten zarata kontrolatzeko.	Ez da antzeman dabilzan motorrek zarata handiegirik ateratzen dutenik. Nolanahi ere, motorrek ateratzen duten zarataren kontrola IAT igarotzean egiten da.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea

DATA: 2018/11/13

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Karmen kaleko bizilagun batek eskatu du edukiontzien irla, 4 eta 6 zenbakien parean dagoena, lekuz aldatzea eliza edo eskola aldera.	Edukiontzien kokapena Udalaren eta Mankomunitatearen artean adostuta dago, gune guztiak har ditzaten eta bilketa ahalik eta eraginkorrena izan dadin; beraz, kokapen hori ezin da aldatu.
Zerbitzuak	Urkizuko dorreetako bizilagun bat kexu da argi gutxi dagoelako 7 zenbakiko dorrera iristeko bigarren eskailera-zatian.	Aztertu egin da Urkizuko dorreetako argiteria, eta egiaztatu da ondo dagoela, eta ez dela beharrezkoa argi gehiago jartzea.
Zerbitzuak	Salatu dute pertsona askok jaten ematen dietela katuei Urkizuko dorreen ostean eta Bittor Sarasqueta inguruan eta katu asko batzen direla.	Hiri Hondakin Solidoak batzea arautzen duen Ordenantzak, bere 5. artikuluan zera dio: “Debekatuta dago hondakinak kontrolik gabe abandonatzea, isurtzea edo ezabatzea, bai eta hondakinak nahastea ere [...], eta, zehazki, behartuta daude hondakinak zatikien bidez bereiztera eta frakzio bakoitzari dagokion bide publikoan kokatutako edukiontzietan uztera”. Udaltzaingoak kontrolatzen du kontu hori, eta CES protokoloa aplikatzen ari gara Katubeltz elkartearekin, katu-kolonietarako. 2020. urtean, albaitari bat batuko da jarduera horiek egitera.
Obrak	Urkizu 9 dorreko bizilagunen ordezkari batek eskatu du komunitatean duten arazoa konpontzea, putzu septikoa gaizki konektatuta dagoelako hoditeria-sare orokorrera.	Ezin da Ego ibaian dagoen kolektorearekin konektatu, putzu septikoaren eta kolektorearen arteko kota-diferentzia txikia da-eta.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea

DATA: 2018/11/13

Saila	Laburpena	Erantzuna
Hirigintza	Informazioa eskatu dute Txontako informazio-bulegoari buruz.	Txontako bizilagunei jakinarazi zaienez, Txonta Berritzen bulegoa udal-zerbitzu bat da, eta honako helburu hauek ditu: interesdunei laguntzen berri ematea, oinarrien interpretazioan sortzen diren zalantzak argitzea, proiektua martxan jartzen inplikaturako eragileekin lankidetzan aritzea eta komunitateei erabakiak hartzeko prozesuetan laguntzea, besteak beste.
Hirigintza	Galdetu dute ea erabil daitekeen Txontako informazio-bulegoa auzoko bizilagunen edo elkarteen bilerak egiteko.	Bulegoa udal zerbitzua da. Hori dela eta, beste udal-egoitza batzuetan ematen diren udal-zerbitzuekin gertatzen den bezala, dituen baliabideak esleituta duen zerbitzuari baino ez zaizkio atxikiko. Hori horrela da zerbitzua baldintza egokietan ematen dela bermatzeko, bai giza baliabideei dagokienez, bai baliabide materialei dagokienez. Hortaz, ezin da bulegoa adierazitako helburu horretara bideratu.  Edonola ere, Udalak baditu berariaz horretarako prestatutako bilera-gelak, planteatutako beharrari erantzuteko, beste zerbitzu publiko batzuei atxikita dauden bitartekoak konprometitu beharrik gabe.
Zerbitzuak	Eskatu dute Urkizuko dorreetako arkupeen garbitasuna hobetzeko.	Mankomunitateak jakinarazi du leku hori egunero eskobatzen dela eskuz, igandeetan izan ezik. Eskuzko garbitzaile elektrikoarekin hobetu egingo da.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea

DATA: 2018/11/13

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Salatu dute Barakaldo 4 zenbakiko zebra-bidetik gertu dagoen kutxatilararen egoera dela-eta iskin egin behar zaiola.	Azertu egin da sareta eta oso ondo dago. Hala ere, ez labaintzeko, luzetarako ildo batzuk egin zitzaizkion saretari rotaflexarekin, zimur bat sortuz ez irristatzeko.
Alkatetza	Pintaketan arazoari konponbidea emateko, proposatu dute gune batzuk egokitzea eta grafitero batzuk kontratatzea han pintatzeko, arte urbanoaren parte gisa.	Eskaera hau aztertzen ari gara, horretarako egokienak izan daitezkeen kokapenak aurkitzeko helburuarekin.
Zerbitzuak	Kexu da edukiontzien txartel bidezko sistemak ez duela funtzionatzen, jendea jarraitzen duelako zaborra kanpoan lagatzen.	Mankomunitateak indartu egiten du zabor-bilketa kontratatutako pertsonalarekin, bai arratsaldean bai gauez zaborra erretiratzeko. Dena den, arazoa gizabide falta da. Errefusa zatikien edukiontziei pedalak jartzeko plana aurrera ateratzen bada, uste dute zerbitzua hobetu egingo dela.
Zerbitzuak	Iparragirrerako igogailua ez dutela ondo garbitzen salatu du. Amaraunak daude.	Mankomunitateari abisua egin zaio, eremu honen garbiketa maiz egin dezaten.
Zerbitzuak	Kexu da jendeak gauzak botatzen dituelako Iparragirreko igogailu ostean dagoen hesira.	Ez geneukan hesiaren giltza barrura sartzeko; arotzak sarraila aldatu zuen eta kopia bat eman dio Debabarreneko Mankomunitateari modu erregularrean garbi dezan. Garbiketa aurtengo otsailean egin zen.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea

DATA: 2018/11/13

Saila	Laburpena	Erantzuna
Obrak/ Udaltzaingoa	Eskatu dute oinezkoen pasabide bat eraikitzea Iparragirretik Karmen kalerako irteera parean.	Ez da egokitzat jotzen; izan ere, oinezkoen bi pasabide goratu daude inguruan, bata 3 zenbaki parean eta bestea Karmen kaleko 9 zenbakian. Metro batzuk beherago, Karmen kalearen eta Barrena kalearen artean, beste zebra-bide bat dago semaforoekin.
Zerbitzuak	Iparragirre 7ko atzealdean zabor-poltsak egoten direla salatu dute.	Udal Lantaldea bertaratu eta poltsak kendu zituen; guztira lau edukiontzi bete zituen.
Alkatetza	Galdetu dute ea Udalean norbaitek galde dezakeen zer egoeratan dauden Diputazioari aurkeztu zizkion alegazioak Azitain eta Maltzaga arteko bidegorriari buruz.	Aurreko diputatu andrearekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko egungo diputatuarekin hainbat bilera egin ondoren, non, besteak beste, alkateak aipatutako alegazioak helarazi zizkien, joan den irailean, aipatutako sailak txosten bat bidali zuzen alegazio horiek ezetsiz, horietako bat bera ere ezin zelako bete eremuaren orografia konplikatuetatik.
Obrak	Barrena kaleko 46 eta 48 zenbakietako bizilagun batek galdetu du ea ireki daitekeen inguru hartako parkea, giltzarrapoz itxita dago-eta.	Parkearen itxiera eraikineko bizilagunek eskatu zuten, gizalegearen aurkako jokabideak zeudela egiaztatu baitzen, eta, beraz, ez da egokitzat jotzen irekitzea.



# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea

DATA: 2018/11/13

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Salatu dute Barrenako parkea ez dela garbitzen.	Mankomunitateak jakinarazi digu gunehori astean 5 bider garbitzen dela. Berriz ere garbitu zen, urriaren 21etik 25erako astean.
Zerbitzuak	Kexu da parkeko plakak ugertu egiten direlako; eta ugerra zabalduz doala eta parkea zikintzen duela.	Plaka berrien konponketa kontratatu da, eta, horiekin, arazoa saihestuko da.
Udaltzaingoa	Eskatu dute pankartak jartzen dituztenei agintzeko jarri ziren ekitaldiak amaitutakoan erretiratzeko.	Ahal denean, egiten da. Ezin denean, Mankomunitatea arduratzen da pankartak erretiratzeaz.
Obrak	Barakaldo 4ko bizilagun batek esan du parke inguruko espaloiak baldosak altxatuta eta apurtuta dituela.	Konpondu dira jasotako baldosak.
Obrak	Galdetu dute ea jar daitekeen abiadura murrizteko banda bat edo pasabide goratu bat egin, Barakaldo 4 zenbakia 7arekin lotzen duen oinezkoen pasabidean.	Aurtengo Planean sartuta daude.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek eskatu du Barakaldo 7ko bihurgunean aparkatzea debekatzea. Esan du ez dagoela bisibilitaterik.	Egindako obrak amaitu eta gero, lerro horia margotu da ez aparkatzeko.
Hirigintza	Barrena 21-23ko bizilagun batek dio LIDL supermerkatua dagoen eraikineko arkupeen sabaia egoera txarrean dagoela.	Erabilera publikoko zortasunak dituzten espazioak mantentzea, hala nola Barrena kaleko 21-23 arkupeena, legez araututa dago, eta sabai faltsuaren mantentzea jabetzari dagokio.
Zerbitzuak	Barrena kalean argi gehiago jartzea eskatu du.	Argiak 2019ko ekainean aztertu eta konpondu ziren.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea

DATA: 2018/11/13

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Eskatu dute pindak garbitzea 21-23 zenbakien atzeko aldean.	Jasota geratzen da, geroago esku hartzeko. Urrian epea zabalduko da garbiketa-programa berezirako, eta komunitateek pintadak garbitzea eskatzeko, behar den dokumentazioa aurkeztuta. Dena den, jakinarazi behar da espazio publikoetan ez dauden edo eduki iraingarririk ez duten pintadak ez direla Udalaren eskumenekoak.
Hirigintza	Eskatu dute Larrañaga y Elorzako piszina garbitzea. Eltxoak erakartzen omen ditu.	Eraikinaren egungo jabetzari dagokio behar bezala mantentzea. Kasu honetan, Udaletik agindu zaio, ofizios edo salaketa zehatzen aurrean, beharrezkotzat jotzen diren lanak egiteko. Eskertuko da, arazo jakin bat antzemanaz gero, Udalari horren berri ematea, horren ondorioz jarduteko.
Zerbitzuak	Eskatu du herritar guztiek erabil ditzaketen edukiontzia jartzea, baita gurpildun aulkian egonda ere.	Debabarreneko Mankomunitatea aztertzen ari da eskaera, eta baloratzen ari da hurrengo eskuratuko dituen edukiontzietako batzuk zirrikitura hurbiltzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat egokitzea.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du LIDLek edukiontzian botatzen dituen hondakinak kontrolatzea.	Arazo hori amaitu egin zen LIDL supermerkatua Otaola Hiribidera joatean.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea

DATA: 2018/11/13

Saila	Laburpena	Erantzuna
Obrak	Galdetu dute noiz hasiko den Azitaingo geralekuko pasarela berriaren obra.	Obrak azaroaren 4an hasi dira, eta aurreikusitako gauzatze-epea 13 astekoa da.
Zerbitzuak	Eskatu dute Eibarrerako sarrera txukuntzea.	Jarduketa hau Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo duen Azitain eta Maltzaga arteko bidegorriaren obrari lotuta dago.
Zerbitzuak	Barrenako bizilagun batek eskatu du Barrena 22-24 kaleko haur-parkea hobetzea eta garbitzea.	Faltx-a pasatu da parkearen garbiketa hobetzeko. Bestalde, jolasak egoera onean daude, haien berrikuspenak egiteko azpikontrataturako enpresak jakinarazi duenez.
Obrak/ Udaltzaingoa	Eskatu dute Azitaingo gasolindegiko espaloia eta oinezkoen pasabidea hobetzea. Esan du sarbideak ez daudela garbi.	Aztertzen ari gara.
Obrak / Zerbitzuak	Salatu dute CDR inguruan, Barrena 32 zenbakian, galtzada beheratuta dagoela.	Galtzadaren puntu hori 2019ko martxoan konpondu zen.
Zerbitzuak	Urkizuko bizilagun batek eskatu du Urkizuko parkeko arbolak kimatzea.	Lorazaintzako arduradunak ikuskapen bat egin ondoren, iritzi zen ez dela beharrezkoa arbola horiek kimatzea, normaltasunez hazten ari direlako, eta ez dutelako inolako arazorik eragiten ez bide publikoan ez aldameneko eraikinetan.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea

DATA: 2018/11/13

Saila

Laburpena

Erantzuna

Zerbitzuak

Urkizuko bizilagun bat kexu da, Urkizuko parkeak bat egiten duten tokian, baldosak beltz daudela eta labain dagoela euria egiten duenean. 2019ko irailean, ez labaintzeko tratamendua aplikatu zen inguruan.